




Plazaolako Natur Bideari buruzko esposizio ibilkaria ikusgarri Jus La Rocha-ko Civivox-ean

Esposizio ibilkariaren bitartez, Nafarroako zonalde hau, bertako produkturik nabarmen eta ospetsuena den Natur Bidea eta lurraldean aurkitzen diren gainerako baliabideak promozionatuko dira, bizilagunak sentsibilizatzen diren bitartean.

Antzinako Plazaola trenaren ibilbidearen eta izenaren jabe egin den Natur Bideari buruzko erakusketa osatzen duten 10 panel erraldoiak Jus La Rochako Civivox-ean egongo dira Urriaren 1etik 20ra bitartean.



1914ean bapozeko tren txiki batek lotu zituen Iruñea eta Donostia, errepide eta burdinbide nagusietatik bazter gelditzen ziren ibarrak eta mendiak zeharkatuz. 40 urtez mineralak, barazkiak, bisitak eta maitasunak garraiatu zituen 20km/orduko.

Kasu honetan, maitasun istorio horietako baten garraioa kontatuko zaigu erakusketan. Xabier eta Karmentxu, ezkonberria den bikotea, izango da tren zaharraren ibilbidea bere egin duen Plazaolako Natur Bidearen historia modu atsegin eta dibertigarrian azalduko diguna. Ezkonbida- helmugatzat Donostia aukeratuko dute eta garraibidetzat Plazaola trena. 1944an Iruñeko Conde Oliveto kalean eraikitako geltokian hasi eta gaur egun Plazaolako Natur Bidea bezala ezagutzen duguna ibiliko dute, jakina denez, bide mota hauek antzinako trenbide sareak baitira.

Bidaia irauten zituen 4 orduetan zehar, bagoi horietako batean bidaiatzeak suposatzen zuen esperientzia ikaragarria eta leihatilatik ikus zitekeen guzti-guztia deskribatu eta kontatuko digute. Era horretan antzinako trena, egungo Natur Bidea eta erakargarriak diren gertuko leku eta baliabideak ezagutzeko aukera paregabea emanez.

Ezkonberriekin batera denboran zehar egingo dugun bidaia honetan, zonaldeko historia ikasteaz gain, bizilagunak bere esku daukan guztia ezagutu ahal izango du, turistak bertan dauden aukera guztietaz jabetuko den bitartean, hala nola, Leteko Iharte monastegia, Iribaseko Iturburua, Albiasuko behatokia, Orgiko Hariztia, Lekunberriko geltokia, Mendukiloko kobazuloak, San Migelen Santutegia, Basaburuako Hariztiak, Leitzalarreako basoa, Iturraski, Larrauneko ibilbideak, ekintza turistikoak eta Plazaolako Natur Bidea, noski.

Nafarroako Gobernuak Turismo Departamenduaren laguntzarekin eta Tragsa S.A

enpresaren babesarekin aurrera eramandako proiektua da hau.

Erakusketa honetan interesa daukanak 948 507205 eta www.plazaola@plazaola.org helbidean eska dezake.

plazaola@plazaola.org

www.plazaola.org